



Esp.kodea: 2021SSEC0003

Gaia: ARAUDI PLANA 2021
Hasiera eguna: 2021/01/18

ZIURTAGIRIA

Ana Belen Hidalgo Corral andrea, ARRASATEKO UDAL AGURGARRIKO IDAZKARIA

NEUK ZIURTATUA:

Udal Plenoak, 2021eko otsailaren 2an egindako bilkuran, besteak beste, honako akordioa hartu zuen:

“PROPOSAMENA 2021EKO ARAUDI PLANA ONARTZEKO (2021SSEC0003).

Udal Plenoak, aldeko 12 boturekin (EAJ-PNV eta PSE-EE), aurkako botu 1ekin (ELKARREKIN ARRASATE-Podemos/Ezker Anitza-IU/Equo Berdeak) eta 8 abstentziorekin (EH BILDU), Barne Antolaketaren batzordearen ondoko diktamena onetsi eta akordio mailara jasotzen du:

“2016ko urriaren 2an sartu zen indarrean 39/2015 Legea. Honen 132. artikulua honakoa dio:

“132. artikulua. Arau-plangintza.

- 1. Herri-administrazioek, urtero, araugintza-plan bat argitaratuko dute. Bertan, hurrengo urtean onesteko aurkeztuko diren lege- edo erregelamendu-ekimenak jasoko dira.*
- 2. Urteko Araugintza Plana onartu ondoren, dagokion Administrazio Publikoaren Gardentasunaren Atarian argitaratuko da.”*

Hori horrela, sailekin kontsulta egin da, eta horiek jarraian zehazten diren ordenantza proposamenak egin dituzte 2021eko Araudi Planean sar daitezen:

20201ERAKO ARAUDI PLANA

Ikusita 39/2015 Legearen 132. Artikuluak xedatzen duena, udal honek 2021ean onartzea, edota aldatzea proposatzen duen ordenantzen zerrenda jarraian zehazten dena da:

Kodea	H21/00143	Udala	ARRASATE/MONDRAGON
Data	2021/ots./05	CUDO	000.0055.AAAAKV57.L.zHUh
URL	https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAAKV57L.zHUh		
Dokumentu honen baliotasuna egiaztatzeko hurrengo Web-an sarbideratu zaitez edo QR irudia irakurri ezazu			





Esp.kodea: 2021SSEC0003

Gaia: ARAUDI PLANA 2021
Hasiera eguna: 2021/01/18

OGASUN, DIRUZAINNTZA ETA ONDARE SAILA:

1.- ORDENANTZA OROKORRA ZUZENBIDE PUBLIKOKO TRIBUTU ETA BESTE DIRU-SARRERA LOKALEN KUDEAKETA, KOBRANTZA ETA INSPEKZIOA ARAUTZEN DUENA

Ordenantza honen xedea da:

- a) Zuzenbide publikoko tributu eta beste diru-sarrera lokalen kudeaketa hobetzea eta erraztea ekar dezaketen prozedurazko aspektuak arautzea.
- b) Hainbat Ordenantza Fiskaletan komunak diren aspektuak erregelatzea, hartara horiek errepikatzea saihestuko baita.
- c) Udalak zehaztu edo garatu beharreko gaiak erregelatzea.
- d) Herritarrak informatzea bai indarrean dauden araeuz, bai tributu-pagatzaileen eskubideez eta bermeez, horien berri jakitea denen interesekoa gerta baitaiteke, tributuzko obligazioak behar bezala konplitze aldera.

2.- ARRASATEKO UDALAREN KONTRATAZIOKO ADMINISTRAZIO PROZEDURAK ARAUTZEN DITUEN UDAL ORDENANTZA. (ALDAKETA)

Azaroaren 8ko 9/2017 Legea, Sektore Publikoaren Kontratuena onartu ondoren, Arrasateko Udalak 2011ko apirilaren 7an egindako osoko bilkuran onartutako "Kontratazioko administrazio prozedurak arautzen dituen Udal Ordenantza" aldatu beharra dauka, araudi berriari egokitzeko.

Ordenantza honen xedea izango litzateke kontratazioari buruz indarrean dagoen araudi berria garatzea, eta Udalean kontratazio publikoa behar den moduan erabiltzea ekarriko duten prozedurak erabili ahal izateko, udal jarduerak behar den moduan funtzionatzeko, legearekin inolako kontraktotasunik izan gabe eta udal baliabideak era arrazionalen eta efizientean erabili ahal izateko.

3.- 2021ERAKO ORDENANTZA FISKALA (ALDAKETA)

Ordenantza honen xedea da udal tributu eta prezio publikoen urteko errebisioak gauzatzea eta berauek eguneratzea, bai zerga, tasa eta prezio publikoen kopuruari dagokionean, bai eta hobari edo

Kodea	H21/00143	Udala	ARRASATE/MONDRAGON
Data	2021/ots./05	CUDO	000.0055.AAAAKV57.L.zHUh
URL	https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAAKV57L.zHUh		
Dokumentu honen baliotasuna egiaztatzeko hurrengo Web-an sarbideratu zaitez edo QR irudia irakurri ezazu			





Esp.kodea: 2021SSEC0003

Gaia: ARAUDI PLANA 2021
Hasiera eguna: 2021/01/18

exentzioei dagokionean. Honetarako udalak kontuan hartu behar ditu bultzatu edota ekidin nahi dituen egintza edo helburuak.

OBRA, ZERBITZU, MANTENTZE ETA AUZOEN BATZORDEA:

AUTOMOBIL ARINETAN BIDAIARIEN HIRI ETA HIRIARTEKO ZERBITZUEN UDAL ERREGELAMENDUA (ALDAKETA).

Arrasateko Udalak 1980ko abenduaren 30ean onartu zuen “automobil arinetan bidaiarien hiri eta hiriarteko zerbitzuen udal erregelamendua”.

Ondoren Euskal Herrian onartu dira 2/2000 LEGEA, ekainaren 29koa, bidaiariak herri barruan eta herriz kanpo kotxez garraiatzeko Zerbitzu Publikoa Arautzen duena eta 243/2002 DEKRETUA, urriaren 15koa, bidaiariak herri barruan eta herriz kanpo kotxez garraiatzeko zerbitzu publikoa arautzen duen Legearen Erregelamendua onartzen duena.

Azken bi arau horiek sakontasunean arautzen dute taxi zerbitzuaren ohiko funtzionamendua eta zenbait puntutan izan ezik, egunerokotasuna markatu dutenak izan dira.

Hala eta guztiz ere, atal zehatz batzuetan Udal Erregelamendua indarrean jarraitu du.

Gauzak horrela eta kontutan izanda gaur eguneko egoera zehatza, xedea da araudiak garatzen dituen zenbait materia zehaztea eta Udal Erregelamendua eguneratzea.

BARNE ANTOLAKETA:

ARRASATEKO UDALEKO ARAUDI ORGANIKOAREN ALDAKETA PUNTUALA (7. ALDAKETA)

Arrasateko Udaleko Udalbatzarrak 1998ko urriaren 30ean onartu zuen Arrasateko Udaleko Araudi Organikoa eta orduz geroztik sei aldaketa izan ditu.

Azken moldaketa honen xedea da, udalaren nahitaezko organoen funtzionamendua teknologia berrietara egokitzea, hala nola, deialdiak posta elektronikoz bidez egitea, bideoaktak egiteko aukera ematea, ezohiko egoeretan saio telematikoak egiteko aukera egotea edo ezintasun luzeetan edo erditze eta amatasun bajetan dauden udalbatzako kideentzat aukera hori ematea. Azkenik, zenbati kasuetan botoa eskuordetzeko aukera ematea.

Kodea	H21/00143	Udala	ARRASATE/MONDRAGON
Data	2021/ots./05	CUDO	000.0055.AAAAKV57.L.zHUh
URL	https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAAKV57L.zHUh		
Dokumentu honen baliotasuna egiaztatzeko hurrengo Web-an sarbideratu zaitez edo QR irudia irakurri ezazu			





Esp.kodea: 2021SSEC0003

Gaia: ARAUDI PLANA 2021
Hasiera eguna: 2021/01/18

KULTURA SAILA:

KULTURATEKO GELEN ERABILERA ARAUDIA

Kulturateko gelen erabilera araudia behin behineko izaeraz onartu zen 2007 urtean.

Gelen erabilera zerbitzua hobetzeko proiektuaren lanketa abian da eta lanketa horretatik eratorri daiteke behin behineko izaeraz onartuta dagoen araudia aldatzea edo araudi horri, dagoenetan, behin betiko izaera ematea.

UDALTZAINGOA:

1.- ZIRKULAZIOAREN ETA HERRI BARRUKO BIDEEN ERABILEREN GAINEKO UDAL ORDENANTZA

Arrasateko Zirkulazioaren eta Herri Barruko Bideen Erabileren gaineko araudia, Udalbatzak 2014ko martxoaren 19an onartu zuen eta GAOn, 2014ko apirilaren 8an argitaratu zen.

Aipaturiko ordenantza zaharkituta geratu da zenbait arau eta definizioetan, hala nola, mugikortasun pertsonaleko ibilgailuei buruzko aspektuetan, abiadura orokorreari buruzkoetan eta beste hainbat esparruetan. Izan ere, trafiko-legediak ezarritako aldaketak ez ditu txertatu.

Gainera, beharrezkotzat jotzen da eranskin bat gehitzea ordenantza horretan. Eranskin horretan, bide publikoetan egiten diren obren seinalizazioa arautuko litzateke.

2- ARRASATEKO UDALTZAINGOAREN ANTOLAKETA ETA FUNTZIONAMENDUAREN ARAUDIA

Maiatzaren 5eko 58/2015 Dekretuaren lehenengo xedapen iragankorrean aurreikusitakoa garatzeko, (58/2015 Dekretua, maiatzaren 5ekoa, Euskadiko udaltzaingoen antolamenduari eta funtzionamenduari aplikatu beharreko esparru-arauak ezartzen dituen), erregelamendu bat egin behar da.

Araudiaren xedea da Arrasateko Udaltzaingoak arautu beharreko antolaketa eta funtzionamendu-irizpideak ezartzea, indarrean dagoen legeriara egokituta.

Kodea	H21/00143	Udala	ARRASATE/MONDRAGON
Data	2021/ots./05	CUDO	000.0055.AAAAKV57L.zHUh
URL	https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAAKV57L.zHUh		
Dokumentu honen baliotasuna egiaztatzeko hurrengo Web-an sarbideratu zaitez edo QR irudia irakurri ezazu			





Esp.kodea: 2021SSEC0003

Gaia: ARAUDI PLANA 2021
Hasiera eguna: 2021/01/18

Hori horrela, Barne Antolaketaren Batzordeak osoko bilkurari proposatzen dio:

Lehenengoa: 20201erako Araudi Plana onartzea aurrez aipatutako testuarekin.

Bigarrena: Aipatutako plana udal web orrian erakusgai jartzea.”

Eta honela jasota gera dadin eta ondorio egokiak sor ditzan, ziurtagiri hau luzatu eta sinatzen dut, Alkateak agindu eta ontzat emanik, Arrasaten, 2021eko otsailaren 5ean.

O.E.

Alkatea

Kodea	H21/00143	Udala	ARRASATE/MONDRAGON
Data	2021/ots./05	CUDO	000.0055.AAAAKV57.L.zHUh
URL	https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAAKV57L.zHUh		
Dokumentu honen baliotasuna egiaztatzeko hurrengo Web-an sarbideratu zaitetz edo QR irudia irakurri ezazu			

